



ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA, BILBO HANDIKO, DURANGALDEKO ETA BUSTURIALDEKO AGLOMERAZIOEN SANEAMENDU-SISTEMAK KUDEATZEKO PLAN INTEGRALAK (SSKPI) IDAZTEKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO. 3118 ZENBAKIKO ESPEDIENTEA, EUOPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIARAKO MEKANISMOAREN FUNTSEKIN FINANTZATUA, ZEHAZKI, «ITSASERTZA ETA BALIABIDE HIDRIKOAK ZAINTEA» 5. OSAGAIAREN «TRANSIZIO DIGITALA URAREN SEKTOREAN» 3. INBERTSIOAREN ESPARRUAN

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLaren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLaren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Cristina Gortazar Salazar
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsultak: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	https://www.consorciodeaguas.eus/eu/ https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: BILBO HANDIKO, DURANGALDEKO ETA BUSTURIALDEKO AGLOMERAZIOEN SANEAMENDU-SISTEMAK KUDEATZEKO PLAN INTEGRALAK (SSKPI) IDAZTEKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA. EUOPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIARAKO MEKANISMOAREN FUNTSEKIN FINANTZATUA, ZEHAZKI, «ITSASERTZA ETA BALIABIDE HIDRIKOAK ZAINTEA» 5. OSAGAIAREN «TRANSIZIO DIGITALA URAREN SEKTOREAN» (INGURUMENAREN ARLOKO ENFORCEMENT DIGITALA) 3. INBERTSIOAREN ESPARRUAN

2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Kontratu honen xedea da Bilbo Handiko, Durangaldeko eta Busturialdeko aglomerazioen Saneamendu Sistemak Kudeatzeko Plan Integralak (SSKPI) idazteko laguntza teknikoko zerbitzua kontratatzea. Saneamendua kudeatzeko plan integralek Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendu berrian (665/2023 ED) definitutako baldintza guztiak bete beharko dituzte, eta bertan garatzen diren arau eta gidaliburuei jarraitu beharko diete.

3.- Loteka banatzea: ☒ Bai ☐ Ez

Lotearen deskribapena eta zenbatekoa:

- **1. lotea:** Bilbo Handiko aglomerazioaren Saneamendu Sistema Kudeatzeko Plan Integrala (SSKPI) idazteko laguntza tekniko
- **2. lotea:** Durangaldeko eta Busturialdeko aglomerazioen Saneamendu Sistema Kudeatzeko Plan Integrala (SSKPI) idazteko laguntza tekniko



B.- KONTRATUAREN XEDEA

Parte hartzeko/adjudikatzeko muga:

- Lizitatzaleek bi loteetarako eskaintzak aurkeztu ahal izango dituzte.
- Ezin izango zaizkio inongo enpresari bi loteak adjudikatu, ez indibidualki ez aldi baterako enpresa-elkarte baten partaide gisa.
- Bi loteetan lizitatzale bera sailkatzen bada lehenengo, sekuentzialki jardungo da: lehendabizi 1. lotea adjudikatuko da, eta ondoren 2. lotea.
- Lizitatzaileraren batek lote bati uko egiten badio edo atzera egiten badu, lote guztiei berariaz uko egiten diela ondorioztatuko da automatikoki.

4.- CPV:

CPV kodea eta deskribapena:

- 71000000-8 Arkitektura-, eraikuntza-, ingeniari- eta ikuskaritza-zerbitzuak
- 71242000-6 Proiektuak eta diseinuak egitea, bai eta aurrekontuak ere
- 71300000-1 Ingeniaritza-zerbitzuak

5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna:

☐ BAI

☒ EZ

Onartzeko kondizioak eta aldaera edo alternatibarik izan lezaketen elementuak: Ez da aplikagarria

6.- Izaera juridikoa

☒ Administratibo ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)

**ZAZPIEHUN ETA HEMERETZI MILA
BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA
HAMAHIRU EURO ETA HAMAHIRU ZENTIMO
(719.953,13 €)**

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: ZAZPIEHUN ETA HEMERETZI MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU EURO ETA HAMAHIRU ZENTIMO (719.953,13 €)

Loteak:

☒ BAI

☐ EZ

- **1. lotea** (Bilbo Handia): 415.323,50 € (BEZik gabe)
- **2. lotea:** (Durangaldea eta Busturialdea): 304.629,63 € (BEZik gabe)

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Prezio unitarioak

4.- Urterokoak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontu-urterokoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:



C.- KONTRATUAREN PREZIOA

- 2025. urtea: 45907.60122 partida 250.000 € (BEZik gabe)
- 2026. urtea: 45907.60122 partida 469.953,13 € (BEZik gabe)

ANUALIDADES	2025	2026	TOTAL
LOTE 1	150.000,00	265.323,50	415.323,50
LOTE 2	100.000,00	204.629,63	304.629,63
TOTAL (IVA EXCLUIDO)	250.000,00 €	469.953,13 €	719.953,13 €

5.- Prezioen berrikuspena:

- ☐ BAI
☒ EZ

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:

- ☒ BAI ☐ EZ

Funts mota: Europar Batasunaren Next GenerationEU Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoaren kontura finantzatua. Mekanismo hori Kontseiluaren 2020/2094 (EB) Erregelamenduak, 2020ko abenduaren 14koak, ezartzen du, zeinaren bidez COVID-19aren krisiaren ondorengo susperraldian laguntzeko Europar Batasunaren Suspertze Tresna bat ezartzen baita. Horrez gain, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren arabera arautzen da.

% 70, elkarrekin finantzatua: (BEZari dagokiona izan ezik)

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta. Hileko ziurtagiriak.

8.- Konturako abonua: Ez dagokio

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa:

1. lotea: HAMABOST (15) HILABETE
2. lotea: HAMABOST (15) HILABETE

2.- Epe partzialak.

- ☒ BAI ☐ EZ

Kontuan hartuta kontratu honen helburua Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan ezarritako baldintzak betetzea dela, nahitaez bete beharreko zenbait mugarri zehazten dira, data zehatz batzuen araberrakoak (ez diote eragiten kontratua sinatzeko egunari). Honako mugarri hauek ezartzen dira lote bakoitzerako eta SSKPI bakoitzerako:

- 1. mugarria: Entrega partziala: arroen eta ereduen ezaugarriak zehaztea.
- 2. mugarria: Entrega partziala: sistemaren deskribapena eta sarearen diagnostikoa egitea, eta kutsadura-helburuak ezartzea.
- 3. mugarria: Entrega partziala: soluzioak proposatzea, alternatibak analizatzea eta estimazio ekonomikoa egitea.
- 4. mugarria: SSKPI dokumentuaren 0 bertsioa (0B) entregatzea. Ezarritako epemuga: 2026ko ekainaren 30a.
- 5. mugarria: SSKPI dokumentuaren 1 bertsioa (1B) entregatzea, arro-erakundera bidaltzeko. Epemuga: 2026ko abuztuaren 30a



D.- KONTRATUAREN EPEA

Une horretan, lanak geldiaraziko dira, akta bat sinatuta. Behin arroko erakundeak SSKPIa berrikusi eta alegazioen txostena entregatuta, berriro ekingo zaie lanei, eta enpresa adjudikaziodunak hilabeteko epea izango du alegazioei erantzuteko txostena idazteko eta SSKPIak alegazioetara egokitzeke; horrela, behin betiko bertsioa (BBB) egingo da.

- 6. Mugarria: SSKPI dokumentuaren behin betiko bertsioa (BBB) entregatzea.

3.- Luzapena

☐ BAI ☒ EZ

4.- Bermealdia: Ez da aplikagarria

5.- Kontratua egikaritzeko lekua: BBUPen instalazioak

6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumenak, aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urtea, kontratuaren batez besteko urteko kopurua halako bat izan beharko du gutxienez (1. lotea: 332.258,79 €; 2. lotea: 243.703,70 €).



G.- KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Kaudimen teknikoa egiaztatzeko, lizitatzailleek zerrenda bat aurkeztuko dute, azken bost (5) urteetan enpresa mailan egindako eta agiri honetan lehiatzen direnekin zerikusia duten lanen erreferentziez osatua (hau da, saneamendu-planak, modelizazio hidraulikoak eta kalkulu hidraulikoak, eta hiriko drainatze-planak).

Zerrenda hori 2020 eta 2024 urteen artekoa izango da, biak barne, eta baztertu egingo da aurkezten den haien aurreko urteetako informazioa. Aipatutako epean emandako zerbitzu nagusien erreferentziei dagokienez, eskatuko da dagokion lotearen urtez urteko batezbestekoaren % 50 edo gehiago izatea exekuziorik handieneko urtean metatutako zenbatekoa.

Alderdi hori egiaztatzeko, ulertuko da urte anitzeko kontratuak modu uniformearen gauzatu direla kontratuaren iraunaldian zehar, non eta kontrakoa berariaz egiaztatzen ez den. Erreferentzia zehatz horien artean, egikaritze oneko ziurtagiriak aurkeztu behar dira, egindako lanak deskribatzen dituztenak, bezero kontratatzaileak —pertsona publikoa nahiz pribatua— emandakoak. Bost urte baino gutxiagoko antzintasuna duten enpresen kaudimena egiaztatzeko, lan horiek egiteko esleituko dituzten teknikariek horrelako proiektuetan egiaztatzen duten esperientzia hartuko da kontuan.

Lizitatzaille bat baztertzeko arrazoi izango da eskatzen den kaudimen teknikoa ez egiaztatzea.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoa:

Halako kasuetan, kaudimena egiaztatzeko ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

ATXIKI BEHARREKO BITARTEKOAK



- Aholkulariaren ordezkaria
- Kontratuaren arduradun izango den goi-mailako ingeniaria: Bide, ubide eta portuetako ingeniari-titulua/Ingeniaritza zibileko masterra, gutxienez 10 urteko esperientziarekin saneamenduko proiektuak, azterlanak eta planak garatzen, koordinatzen eta idazten.
- Laguntzako ingeniaria: Goi-mailako edo erdi-mailako teknikaria (hauetako titulazio bat duena: Herri Lanetako Ingeniaritza Teknikoa edo gradua, Meatze Ingeniaritza Teknikoa edo gradua, Industria Ingeniaritza, etab.), gutxienez 5 urteko esperientzia duena saneamenduko proiektuak, azterlanak eta planak idazten.
- Hidraulikako ingeniari espezialista: Bide, ubide eta portuetako ingeniari-titulua/Ingeniaritza zibileko masterra edo erdi-mailako titulazioa duena (hauetako titulazio bat: Herri Lanetako Ingeniaritza Teknikoa edo gradua, Meatze Ingeniaritza Teknikoa edo gradua, Industria Ingeniaritza, etab.), gutxienez 5 urteko esperientzia duena hiriko saneamendu- eta drainatze-sareak karakterizatzen eta modelizatzen eta hidraulikako kalkuluak egiten.
- Ingeniari aholkulari espezialista: Bide, ubide eta portuetako ingeniari-titulua/Ingeniaritza zibileko masterra, gutxienez 20 urteko esperientzia duena saneamendu-proiektuetan, saneamendu- eta hiri-drainatze sareak modelizatzen eta hidraulikako kalkuluak egiten.
- GISeko ingeniari espezialista: Erdi-mailako titulazioa, gutxienez 5 urteko esperientzia duena kudeaketa geografikoko lanetan.
- Delineatzaile 1, gutxienez 5 urteko esperientzia duena.

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena
- 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.
- 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Preskripzio tekniko partikularren agiriko 11. apartatuan, lizitatzailleek eskaintzak aztertzeko aurkeztu behar dituzten agiri teknikoen edukia eta irismena zehazten dira. Bi loteetako (A, B eta C gutun-azalak) bakoitzerako, dokumentazio osoa aurkeztu beharko da.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, nahitaez idatzita l. eranskinetako ereduari jarraikiz, eskaintako prezioan zerga guztiak, BEZa izan ezik, barne hartuta.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

- Prezioen zerrenda:** Zerrenda horretan, preskripzio tekniko partikularren agirian zehaztutako unitateen unitate-prezioak sartu behar dira, bai eta lehiakideak aplikagarri gisa proposatzen dituen unitateenak ere. Hori guztia, preskripzio tekniko partikularren agiriko 12. eta 13. apartatuetan ezarritako kondizioen arabera.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- b) **Kontratuaren aurrekontua:** Lan guztiak exekutatzeko aurrekontua, unitate-prezioetan egindako lanen batura oinarri hartuta; lan horien neurketa bat dator aurrekontu partzialetako neurketarekin.
- c) **Proposamen ekonomikoa:** Lizitatzailerak edo hura ordezkatzeko duen pertsonak sinatutako proposamen ekonomikoa; nahitaez, administrazio-klausula partikularren agiriaren eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera egin behar da, eta prezioan zerga guztiak sartuta.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
- 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
- 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA / ADITUEN BATZORDEA.

☒ Kontratazio-mahaia

Presidenteak:

Ekaitz Mentxaka Corral jn.

Kideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jn.

Xabier Orue Moro jn.

Itziar Zarate Urrutia and.

Gerardo Latorre Pedret jn.

Jose Manuel Pereda Renobales jn.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jn.

☐ Adituen batzardea

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Lehiaketa adjudikatzeko oinarri, baloratu beharreko alderdi gisa, erabili beharreko irizpideak, hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 51 PUNTU

Irizpide honetan 51 puntu emango dira gehienez.

a. **BALORAZIO EKONOMIKOA50 PUNTU**



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BBM) / 2	48 puntu
BBM	47 puntu
0,8 x BBM	46 puntu
0,6 x BBM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintza-zenbatekoaren arteko kendura zati lizitazio-aurrekontuaz egitean ateratzen dena, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona
- BBM: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aterako da aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta.

Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBM < Bi \leq 0,8 \times BBM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBM)}{0,2 \times BBM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBM < Bi \leq BBM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBM)}{0,2 \times BBM}$$

Baldin eta $BBM < Bi \leq (BBM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBM)}{(Bmax - BBM)} \times 2$$

Baldin eta $(BBM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - \text{BBM} - B_{\max})}{(B_{\max} - \text{BBM})} \times 2$$

b. IRIZPIDE SOZIALAK1 PUNTU

Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak baztertuko dira, lantaldeko emakume-portzentajearen arabera, irizpide honi jarraituz:

- Portzentajea % 50 baino handiagoa edo berdina: 1 puntu
- Portzentajea % X bada (% 50 baino txikiagoa): X/50 puntu

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 49 PUNTU

Ezaugarri teknikoak eta ekonomikoak kontuan hartuta, **K = 1** faktore zuzentzailea aplikatuko zaie txosten teknikoaren azken puntuazioei.

Era honetan azpibanatzen da balorazio teknikoaren puntuazioa:

1.- Exekuzioaren memoria teknikoa eta metodologia (22 puntu)

1.1.- Kontratuaren analisia (5 puntu)

Lizitatzailleak proiektuaren eta haren ezaugarri nagusien azterlan bat egingo du, proiektuari buruzko ezagutza-maila adieraziko duena, eta proposatutako lan-metodologia garatzeko abiapuntu izango diren oinarriak justifikatuko dituena.

1.2.- Lan-metodologia eta antolakuntza (17 puntu)

Argi eta garbi ezarriko da jarraitu beharreko metodologia, lanaren osagai den ataza bakoitzerako; ataza horiek preskripzio teknikoen agirian zehazten dira. Bai 2. atazan (kalkulatutako prezipitazioa), bai jarduera-proposamenen atazetan, ulertuko da klima-aldaketaren eraginaren estimazioa egina dagoela.

Egin beharreko lanaren kalitatea bermatzeko proposatutako neurriak deskribatuko dira, eta lan garrantzitsuenen jarraipena, kontrola eta garapena egiteko proposatzen diren prozedura espezifikoak adieraziko dira, lan horien xedearen ezaugarrietara egokituta eta zehaztuta.

Dagokion kontratuari aplikatu behar zaizkion behar beste alderdi osagarri adieraziko dira eskatutako prestazio osoa optimizatzeko edo hobetzeko.

2.- Kontratuaren eskura jarritako baliabide teknikoak (25 puntu)



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

2.1.- Proposatutako talde teknikoa, antolaketa eta zerbitzuaren egokitasuna (12 puntu).

Esleitutako talde teknikoaren osaera, kideen kualifikazioa, lantaldea kontratuaren helburura egokitzeko lantaldeari aurreikusten zaion dedikazioa eta antolaketa, LOTE bakoitzeko eta kontratuan jasotako atazen arabera. Talde teknikoko kide bakoitzaren curriculum vitae laburtua —egin beharreko lanei dagokiena— erantsiko da. Geroago formula bidez ebaluatu beharreko irizpideak baloratuko direnez, ezingo da datu nominalik agertu, ezta sexua adierazten duenik ere. Proposatutako talde teknikoko kideen esperientzia behar bezala egiaztatu beharko da.

12. atalean adierazten da zer talde tekniko jarri behar den, gutxienez, kontratuaren eskura.

Gainera, kontratuaren ardura duen goi-mailako ingeniariarentzat, laguntzako ingeniariarentzat eta hidraulikako espezialistarentzat, baloratuko da kontratu honetakoen antzeko (modelizazio hidraulikoa eta saneamendu-planak) zerbitzuetako esperientzia, uraren ziklo integraleko enpresetan edo administrazioetan, gutxienez 50.000 euroko zenbatekoan, kontratatzailearen profilean AKPA argitaratu aurreko azken 5 urteetan exekutatuak.

Lizitatzailleak laburpen-taula bat aurkeztuko du, Excel formatuan. Taula horretan langileen proposamena jasoko da, eta enpresa adjudikazioduneko langileak diren edo ez adieraziko da. Kide bakoitzaren esperientzia behar bezala zehaztuko da, bai eta kontraturako dedikazioa ere.

Esperientzia zenbatzeko lanei dagokienez, nahitaezkoa izango da langileek frogatzea lizitatzen den kontraturako eskatzen den gutxieneko titulazio berarekin aritu direla.

Langileek aldi berean zenbait proiektu/azterlan/plan zuzentzailetan parte hartu duten kasuetako esperientzia kalkulatzeko, ezin izango dira batu aldi bereko epeak; aitzitik, esperientzia hori behar bezala xehatu beharko da, bakoitzari pertsona horrek eskainitako dedikazioaren eta/edo benetako parte-hartzearen arabera. Benetako epe hori zero izango da, baldin eta aztergai den pertsonak proposatzen den lanpostuari ez dagozkion funtzioak, kargua edo kategoria bete baditu, bai eta jarduerarik gabeko aldietan eta proiektuak/azterlanak/plan zuzentzaileak idaztearekin zerikusirik ez duten lanetan aritu den aldietan ere.

2.2.- Taldearen antolaketa eta zerbitzuaren egokitasuna (10 puntu)

Kontratua exekutatzeko aurreikusitako antolamendua lizitatzailleak ezarriko du; hala, kontratua osatzen duten profiletako bakoitzari esleitutako harremanak eta funtzioak zehaztuko ditu, betiere aurreko apartatuan deskribatutako metodologiarekin eta prozedurekin bat etorriz.

Obra-lanak garatzeko plan bat egingo da, zeinean zenbait mugarri ezarriko baitira lan horiek exekutatzeko eta behar bezala justifikatuko baita pleguan adierazitako jarduerak garatzeko



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

esleitutako denbora partzial bakoitza. Argi adieraziko da, ahalik eta banakatzerik handienarekin, lanak egiteko proposatutako teknikari bakoitzari esleitutako dedikazioa.

Kontratuaren esanetara jarritako langileek prest egon beharko dute 24 orduko aurrerapenez jakinarazitako bilera presentzialetara joateko, BBUPEko bulegoetara, bai eta bilera telematikoak egiteko ere.

2.3) Hirugarrenei azpikontrataturako lanak (0 puntu) -> Berariaz adieraziko dira, irismena eta hartutako konpromisoak adierazita.

2.4) Bitartekoak eta azpiegitura teknikoa (3 puntu). -> Lizitatzailerak kontratuaren eskura jarritako bitartekoak eta azpiegiturak. Besteak beste, alderdi hauek baloratuko dira:

- Ingeniaritza-lan gehienak egingo diren bulegoa zehaztuko da.
- Prozesu hidrologikoak eta hidraulikoak kalkulatzeko eta modelizatzeko tresnak eta GISeko programak edukitzea eta erabiltzeko gaitasuna izatea.
- Laneko Arriskuen Prebentzioko helburuak betetzeko bitarteko teknikoak: instalazioetan datuak hartzekoak, landa-neurketak egitekoak, espazio konfinatuetan sartzekoak eta abar.
- Lanak egiteko lantaldearen esku jarriko dituen baliabide teknikoak, hala nola testuak editatzeko eta planoak eta aurrekontuak egiteko ekipamendu informatikoak.

3.- Ingurumen-irizpideak (2 puntu)

Baloratuko dira kondizio-agiriaren xede diren lanak gauzatzean lizitatzailerak aplikatzea proposatzen dituen ingurumena babesteko neurriak. Era berean, baloratuko da saneamendu-sarea hobetzeko jarduketan proposamenean estandarrak eta ingurumen-inpaktua murrizteko arrazoizko beste neurri batzuk aplikatzea (gehienez 2,0 puntu).

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Zenbait eskaintzaren arteko berdinketa hautsiko da honako irizpide sozial hauek, eskaintzak aurkezteko epea bukatzeko momentuari buruzkoak, aplikatuz:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarra baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.

- Lau lizitatzaille edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkeztzen badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzaileri, hautapen-prozesua jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:

Lizitatzaille bat baztertzeko arrazoi izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZIGOR ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

Ezarritako epeak ez betetzean kontratuaren zenbatekoaren % 2ko zigorra ezarriko da atzeratutako 30 egun natural bakoitzeko; gehienez, kontratu osoaren % 20 arte metatu ahal izango da. Mugarri partzialak betetzen ez badira, atzerapena duen atazaren zenbatekoaren % 2ko zigorra ezarriko da atzeratutako 10 egun natural bakoitzeko; gehienez, dagokion ataza osoaren % 20 arte metatu ahal izango da.

Lizitatzailleak proposatutako ingurumen- eta gizarte-konpromiso bakoitza ez betetzea zigortuko da, adjudikatutako kontratuaren zenbatekoaren % 2arekin, eskaintzaren balorazio teknikoan lortutako ehuneko puntu bakoitzeko.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguruia dagoelako egiaztagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez-aplikagarria.



Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kontura finantzatutako kontratuei dagokienez, aurreikusi gabeko aldaketak izan litezke zehaztutako betekizunak aldatu beharra dagoelako arau-aldaketek planari buruzko ezaugarri/kondizio desberdinak ekartzearen ondorioz.

Kontratua aldatzeko kausa izango da agintari arduradunak agintzea DNSHaren eta etiketa berde eta digitalaren arloan neurri zuzentzaileak hartu beharra dagoela.

P.- SUBROGAZIOA

Ez dagokio

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- ☒ Hasieran aurkezteko betebeharra
☐ Azpikontratazioaren mugak

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

- ☒ BAI
☒ EZ

R.- SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANARI BURUZKO INFORMAZIOA

OSAGAIA:

Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana lau helburu handitan dago eratuta (Espainia berdea; Espainia digitala; Espainia, genero-arrakalarik gabe; Espainia kohesionatua eta inklusiboa) eta hamar palanka-politika:

- I. Hiri- eta landa-agenda eta despulazioaren kontrako borroka.
- II. Azpiegitura eta ekosistema erresilienteak.
- III. Energia-trantsizio bidezko eta inklusiboa.
- IV. XXI. menderako administrazioa.
- V. Industria-ehuna eta ETEak modernizatzea eta digitalizatzea, turismoa suspertzea eta Espainia herrialde ekintzaile gisa sustatzea.
- VI. Zientziaren eta Berrikuntzaren aldeko Ituna. Estatuko Osasun Sistemaren gaitasunak indartzea.
- VII. Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena.
- VIII. Zaintzen ekonomia berria eta enplegu-politikak.
- IX. Kulturaren eta kirolaren industria sustatzea.
- X. Zerga-sistema modernizatzea, hazkunde inklusibo eta jasangarria xede.

Palanka-politika horiek 30 osagaitan zehazten dira. **Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 5. osagaiaren** barruan (Itsasertza eta ur-baliabideak zaintzea) 3. inbertsioa dago («Eraldaketa digitala uraren sektorean»). Lizitazio honen edukia osagai horren barruan dago; kontratistak/azpikontratatistak hura ezagutzen duela adierazten du, eta bere jardun-eremuan hura betetzea hitzematen du.



Hartarako, hari lotutako helburuak betetzen lagunduko dute, Suspertze Planaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eta Europa eta Espainia mailako suspertze-plana erregulatzeko araudiari jarraikiz. Zehazki, oinarri horiekin hauetan sar litezkeen jarduketak egingo dira:

C5.I3a azpineurria, ur-baliabideei buruzko ezagutza eta horien erabilera hobetzeari buruzkoa.

Ura eta energia erabiltzean efizientzia sustatzeko erarik onena uraren hiriko zikloaren kudeaketa integrala da, eta digitalizazioa, horrenbestez, uraren hiriko zikloa kudeatzearen efizientzia orokorra hobetzeko zeharkako neurria da, eta osatu eta lagundu egiten du, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana diseinatuta dagoen bezala, 79. CID helburua («Baliabide hidrikoen ezagutza eta erabilera hobetzeko eta prezipitazioak eta beste datu meteorologiko batzuk erregistratzeko tresnak abian jartzea») betetzen, era horretan 91/271/EEE Zuzentaraua betetzen dela bermatzeko eta energia-efizientiaren irizpideak betetzeko, bai eta ura banatzeko sistemetan efizientzia hobetzeko eta ur-galerak murrizteko ere.

Inbertsioak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren C5.I3 azpineurrian sartzen direnez, egingo diren jarduerak bat etorriko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren «Klimaren aldeko ekintzaren jarraipen-metodologia» VI. eranskinaren «Ura kudeatzea eta ur-baliabideak kontserbatzea (ibai-arroen kudeaketa, klima-aldaketa egokitzeko neurri espezifikoak, berrerabilpena, ihesak murriztea barne)» 040 esku hartzeko eremuarekin.

Entitate deitzaileak egiazta dezan deialdiarekin lotutako mugarriak (lorpen kualitatiboak) eta helburuak (lorpen kuantitatiboak) bete direla, kontratistak/azpikontratatistak epearen barruan eta behar bezala aurkeztu beharko ditu egoki irizitako jarraipen-txostenak, zeinak honako honetan jasota dauden: HFP/1030/2021 Agindua (irailaren 29koa, SEEP kudeatzeko sistema eratzen duena) eta HFP/1031/2021 Agindua (irailaren 29koa, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen), Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarrien eta helburuen betetze-mailaren eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioaren jarraipena egiteko).

Bete behar du, era berean, urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa.

Ez-betetzetzat hartuko da eskatutako jarraipen-txostenak ez aurkeztea, bai eta txostenok osatu gabe, epez kanpo eta agiriaren zehaztapenak aintzat hartu gabe aurkeztea.



JARDUKETA:	Urdata BIZKAIA I (A04) – Saneamendu-sistemen plan integralak
Kontratazio-organoaren iruzurraren aurkako neurri-plana kontsultatzeko esteka	https://www.consorciodeaguas.eus/wp-content/uploads/2023/10/PLAN-MEDIDAS-ANTIFRAUDE_2024.pdf

KONTRATUA EGIKARITU BITARTEKO BETEKIZUNAK

Lantaldeak ezinbesteko ekipamendu-baliabide tekniko guztiak izango ditu. Zehazki, eskura izan beharko ditu kontratuaren baldintza tekniko partikularren agiria betetzeko behar diren hardwarea eta softwarea.

Hasiera batean proposatutako taldeko kideren batek baja hartzen badu, kontratistaren ordezkariak beste kide bat proposatuko dio BBUPeko kontratuaren arduradunari, baja hartu eta 15 egun igaro baino lehen, jakinaren gainean egon dadin. Proposatutako kideak nahitaez bete beharko ditu langileei eska dakizkiekeen kontratu-baldintzak, eta ordezkorearen kaudimen bera edo handiagoa izan beharko du.

Nolanahi ere, bai ordezkariak bai taldeko arduradunak prest egon beharko dute, kontratuaren arduradunak hala eskatuta, lanen aldizkako jarraipena egiteko.

Kontratuari esleitutako langileak ordeztzen badira, ordezkapenak 1,0 hilabetetik gorako gainjartzea izan beharko du. Gainjartzeak ez dira ordaindu beharrekotzat hartzen.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Esleipendunak kontratu honi ordezkari bat atxiki beharko dio, behar adinako gaitasuna duena kontratuaren harremanei eragiten dien guztian jarduteko eta/edo enpresa ordezkatzeko. Ordezkari horrek eta adjudikaziodunaren agindupean dauden langileek ez dute Partzuergoarekin harreman juridikorik izango, ez eta lan-harremanik edo bestelakorik ere, ez kontratua indarrean den bitartean, ez kontratuaren amaieran.

GALDERAK

Galderak onartzeko epea lizitazioa argitaratzean hasiko da, eta eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino hamazazpi egun natural lehenago amaituko da.

BBUPek idatziz erantzungo die egindako galdera guztiei, eta eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino zazpi egun lehenago jakinaraziko die erantzuna eskaintzaile guztiei.

BESTE GOGOETA BATZUK

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute indarrean dauden lege-xedapenen arabera Administrazioarekin zerbitzu teknikoak gauzatzeko kontratuak sinatzeko ahalmena duten pertsona juridiko guztiek.

Zehazki, **eskatuko zaie erabateko independentzia juridiko eta ekonomikoaren ziurtagiria edo berariazko adierazpena**, materialak edo osagaiak fabrikatzen dituzten sozietateekiko eta enpresa sustatzaile, eraikitzaile edo instalatzaileekiko. Era berean, esleipendunak izanez gero, konprometitu beharko dute BBUPekiko kontratu-loturak irauten duen bitartean hirugarrenentzako eskaintzak egiten ez laguntzera.



Financiado por
la Unión Europea



Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia